



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2021eko uztailaren 6ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko uztailaren seian, zortzi eta erdietan, Herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CHAMALBIDE Corinne, M. GOICOCHEA Iñaki,
Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine

Deialdiaren eguna : 2021eko uztailaren 2a

Afitxatze eguna : 2021eko uztailaren 2a

7.ERABAKIA : ENEDIS SOZIETATEAREKIN HITZARMENAREN IZENPETZEA

Nomenklatura : 3.5

Auzapez jaunak jakinarazten du elektrika transformazio gune indartsuago baten ezartzea baitezpadakoa dela Xerrenda gunean. Zehazten du hodi batzuk lekuan eman beharrak direla gune horren gauzatzeko eta elektrizitate publikoaren banaketaren segurtatzeko. Proposatzen du ere, Herriko lurra den A 796 lur-sailaren uztea elektrika transformazio gune horren sortzeko zehazten duen hitzarmenaren eta 7 hodiren bide-zorra zehazten duen hitzarmenaren izenpetzea Enediz sozietatearekin.

Herriko kontseiluak Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberatu ondoren

- **BAIMENTZEN DU** Auzapeza hitzarmen horien izenpetzeko Enedis sozietatearekin : A 796 lur-sailaren uztea eta bide-zorra.

- **BAIMENTZEN DU** Auzapeza txosten horri loturik den edozein dokumenturen izenpetzea.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balitzko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineke egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko uztailaren 29an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2021/07/30ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/07/30a